BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2206

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 26koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Asociación Paz con Dignidad erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko Itxaso Vicente Martínez lankideak egindako eskaera onartzen duena.

2010eko irailaren 21eko Garapen Lankidetzarako Zuzendariaren Ebazpenaren arabera, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko 2010erako Fondoaren kontura euskal borondatezko lankideei laguntzak emateko dena, Asociación Paz con Dignidad erakundeari 18.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion Itxaso Vicente Martínez lankide boluntarioak gauzatuko zuen proiektua ordaintzeko (KOP-2010PR/0008).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko abuztuaren 4an bidalitako komunikazioan, dagoeneko emandako diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko eskabidea aurkeztu zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako euskal lankideei diru-laguntzak arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 11. artikuluak ezarritakoaren arabera, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, diru-laguntza jaso zuen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Hortaz, Garapen Lankidetzarako Zuzendariari dagokio baldintzak aldatuko dituen Ebazpena ematea, eta hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregituratuko dira, diru-laguntza horiek emateko ezarritako mugak aplikatuz, eta pertsona, erakunde eta entitate onuradunek neurriz kanpo jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dituzte.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación Paz con Dignidad erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko Itxaso Vicente Martínez lankideak egindako eskaera onartzea.

Horren ondorioz, bigarren ordainketa egiteko akordioak (9.000 euro) indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 26a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.